

## Denon Eskolaren Ohiko Batzar Orokorra

### Azaroak 22, 9:30h, Denon Eskolaren egoitzan

2014/15 ikasturteari ekin diogu eta DENON ESKOLATik ikastetxeak eta Guraso Elkarteak Hezkuntza Proiektu Onak izan ditzazuen espero dugu.

Urtero bezala, lehenengoko hiruhilekoan Denon Eskolaren Ohiko Batzar Orokorra ospatuko dugu. Aurten Azaroak 22an ospatuko da, goizeko 9:30etan, DENON ESKOLAREN egoitzan. Hemendik gutxira deialdia bera eta dagokion informazio guztia jasoko duzue.

**Parte hartzera animatzen zaituztegu federazioaren inguruko erabakiak foro horretan hartzen baitira, bai hezkuntzaren alorrekoak zein federazioaren funtzionamenduari dagozkionak.**

## LOMCEri STOP



EHIGE Konfederaziotik- Denon Eskola haren kidea da eta azken bi urteotan presidente kargua izan du- salatu egin dugu Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak LOMCE legea aplikatu egingo duela eta hala adierazten da Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoak Antolatutako argitaratutako ebazpenean.

Horrela lehen hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailako ikasleriak akta ezberdin bi izango ditu ingurunearen natur, gizarte eta kultur ezagutzarako: Natur zientziak eta Gizarte zientziak hain zuzen ere. Horrez gain erlijioa aukeratzen ez duen ikasleriak Giza Baloak ikasi beharko ditu eta ikasgai biak ebaluagarriak izango dira (eta hori guztiari zera gehitu behar zaio: gure erkidegoa erlijio gehien ematen dutenen artean dagoela).

Azken orduan gobernu zentralak eta euskal gobernuak akordio partzial batera heldu direla jakinarazi zaigu LOMCE Lege Organikoaren aplikazioa dela eta. Akordio horren arabera ikasgelatan **euskara ikastearen antolaketa** Euskal Autonomia Erkidegoaren ahalmena "babestu" egiten da eta Euskadin **Eskola Kontseiluen** paper garrantzitsua "bermatzen" da. Aipatutako akordio hori sakonean aztertuko dugu eta ikusiko dugu hori benetan esaten den bezala den.

Edozein modutan Denon Eskolatik informazio hitzaldiak antolatuko ditugu ematen diren urrats guztien gaineko informazioa izan dezazuen. Horrez gain EHIGE konfederazioarekin batera bultzatzen diren egitasmoen unean uneko informazioa ere jasoko duzue.

## Eskola Kontseiluak

Eskola Kontseiluen inguruan Eusko Jauriaritzak LOMCEren bidez **Eskola Kontseiluak "proposamenak egin baina erabaki ahalmenik gabeko"** organoak izatea nahi zela azaldu du. "Orain, akordioaren ondoren Madrigo Gobernuak aitortu egiten die erkidegoetako hezkuntza administrazioei harreman hauek nola kudeatzen diren erabakitze ahalmena".

Akordio honen bidez ematen du Eusko Jauriaritzak ezarri ahal izango duela ikastetxeetako zuzendaritzek eta parte hartzerako talde organoek izango duten harremana, ikastetxeetan hartzen diren erabakietan azken hauen paper erabakigarria bermatuz".

Irrikitzen gaude hau guztia konfirmatuko duen araudia ikusteko.

LOMCE  
GELDITU DEZAGUN!  
PARTE-HARTU ESKOLA  
DEMOKRATIKO BATEN ALDE.

PAREMOS LA  
LOMCE!  
PARTICIPA POR UNA  
ESCUELA DEMOCRÁTICA

ESKOLA  
KONTSEILUETARAKO  
HAUTESKUNDEAK  
ELECCIONES  
A CONSEJOS  
ESCOLARES

GUZKURE  
eskola  
-euskal eskola publikoak-

INFO +  
WWW.EHIGE.ORG  
94 436 93 60 / 943 32 72 08 / 945 25 61 62

ehi  
guzkoen elkartea



## IGEentzako Aseguruak

Jakingo duzuenez federatutako Guraso Elkarteek **Erantzukizun Zibileko Asegurua**, euskal araudiak esaten duenera eguneraturik, eta IGEetako **boluntarioentzako Istripu Asegurua** daukazue.

Horrez gain Guraso Elkarteoi eskaintzen dizuegun ikasleentzako **Istripuetarako Laguntza Medikura-ko Asegurua** negoziatu ahal izan dugu aurreko ikasturtean bezala.

Prezioa iaz bezala mantentzen da, hau da, 8,5 euro ikasle bakoitzeko ikasturte osorako, eta berezia da ikastetxeak ikastorduetan zein Guraso Elkarteak eskolaz kanpoko ekintzetan antolatutako jarduera guztiak estaltzeaz gain ikastetxetik kanpo 10 egun arte egiten diren egonaldiak ere estaltzen dituelako.

**Interesaturik bazaudete eta kontratatu nahi baduzue jar zaitzete gurekin kontaktuan eta informazio gehiago eman eta izan ditzakezuen zailantza guztiak argitzen saiatuko gara.**

## Kontratazioak

Denon Eskolatik bultzatutako eskolaz kanpoko begiraleak kontratatzea kudeatzeko proposamenak harrera ona izan du Guraso Elkarteetan. **Gaur egun 29 dira kudeaketa hori eskatu duten ikasleen Guraso Elkarteak. Hori dela eta 240 begirale baino gehiagori egin zaio kontratua Denon Eskolatik.**

Zerbitzu hau erabiltzeko asmoa daukazuen Guraso Elkarteok jakin ezazue edozein momentutan eska dezakezuela. Edozein modutan zalantzarik izanez gero edo informazio gehiago nahi izanez gero dei ezazue Federaziora.

## Testuliburuak

Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak 2014-15 ikasturterako lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako liburuak ez berriztatzea erabaki du. Haien argudioa liburu hauek hemendik gutxira araudi berrira egokitu beharko direla izan. Honekin batera Hezkuntza Sailburuak lehen hezkuntzako familiek ordaintzen duten kuota erdira jaitsiko dela iragarri du. Ondorioz maila horietako liburuak seigarren aldiz berrerabiliko dira. Denon Eskola Federazioan ez dugu ondo ikusten libururik berriztatzen ez bada familiak kuota ordaintzen jarraitzea. **Hori guztiagatik zera eskatzen diogu Sailari:**

- 5. eta 6. mailako familiek kuotarik ez ordaintzea eta Hezkuntza Sailak hartzea bere gain.
- 5. eta 6. mailako liburuak berriztatze 2014an onartutako aurrekontua osorik Euskal Eskola Publikoan erabil dadila.
- Hezkuntzako eragile guztiak batera benetako trantsizio plana burutzea Euskal Eskola Publikorako curriculum material digitalak azken helburua izanik.